


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**ZUMALAKARREGI HIRIBIDEA 1****Eduardo Lagarde, 1930****Deskribapena**

1 eta 3 zenbakiak proiektu beraren parte dira. Kale kantoiko eraikin bat bikoiztea dakarte, bai badiaranzko aldean bai Errotatxo plazaranzkoan. Profilak beheko solairua, solairuartera, goiko bost solairu eta atzeraemandako seigarrena dauzka, hasieratik beretik bi kantoiko soluzio dauzkala teilazko estalkiz errematatuta dauden oktogono formako dorreekin. Zabalguneko konposizio ildoei segitzen badiete ere, fatxadak apaindura faltagatik nabarmentzen dira, baoak garbi moztuta daude paretetan, azpadura eta bao buruetako inolako elementu erantsirik gabe. Garai horretan mugimendu modernoak iristeak eragina izan zuen, noski, horretan. Dena den, eskema tradizionala errepikatu egiten da atal nagusiaren hasiera eta erremateko balkoi jarraituekin, ertzetako begiratokiaren kokapenarekin, eta moldura xeheetasun batzuekin.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: esku hartze unitatea 3 zk.koarekin.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.